



ARESOko UDALA



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

## BANDOA

### AURTEN ERE, ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

Aresoko Udalak, honen bidez, aurten ere errenta aitortpena euskaraz egitera gonbidatu nahi zaitu. Zergatik?

- Osotasunean euskaraz bizitzeko, eremu guztietara zabaldu behar dugulako gure hizkuntza.
- Udalerrri euskaldunetako herritarrok eredu garelako euskarari dagokionean.
- Administrazioarekin euskaraz aritzeko eskubidea eta beharra dugulako euskaldunok.
- Errenta aitortpena euskaraz eginez, administrazioaren euskalduntzean eragiten dugulako.

Errenta aitortpena egiteko epea ekainaren 22ra artekoa da eta modu askotan egin dezakezu (autolikidazio proposamena berretsiz, era mekanizatuan, gestoria baten bidez, Ogasuneko bulegora joanda, finantza erakunde batean...). Edozein modutan egiten duzula ere, euskaraz egin dezakezu, udalerrri euskaldunetan euskaraz garelako erakutsiz.

Areson, 2018ko apirilaren 18an

